

Vitoria-Gasteizko Energia Iraunkorraren Astea

2012ko ekainaren 18tik 22ra arte
Europa Biltzar jauregia

SARRERA

Aurten ere, Vitoria-Gasteizko Udalak 2012ko Energia Iraunkorraren Europako Astearen deialdian parte hartuko du, oraingoan European Green Capital sariaren esparruaren barruan, eta energiaren erabilera eraginkorrean eta energia baliabide berriztagarriekin sortzearen inguruan eragina duten Europako hainbat programen esparruan parte hartzen du.

Vitoria-Gasteizko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak antolatu dute Energiaren Astea, eta hainbat ekitaldi biltzen ditu, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin lotutako proiektuak eta ekimenak ezagutarazteko eta horien inguruan hausnartzeko helburuarekin.

Sektoreko profesionalei zuzendutako bost Jardunaldi Teknikoetan "Alkateen Itunari" buruz hitz egingo da; "Solar Decathlon" arkitektura eta ingeniariartzako nazioarteko lehiaketaren inpaktua balioetsiko da; eraikuntzaren sektorean energia-birgaitzeak dituen aukerak aztertuko dira; etxebizitza zaharren nahiz oin berriko etxebizitzaren energia-aldagaiari buruz hausnartuko da; eta, ibilgailu elektrikoa ezartzeko hainbat estrategia ezagutaraziko dira.

Horretaz gain, Hiri Ekologiako Ikasgela formatuan hiru mintzaldi programatu dira. Lehenengoan, POLIS Proiektuaren emaitzak aurkeztuko dira; proiektuak eguzki-energia gure hirian aprobetxatzeko aukera aztertu du. Bigarrenean, biomasaren eta geotermiaren bitartez energia berriztagarriak klimatizazioan aprobetxatzeari buruzko proiektu batzuk ezagutaraziko dira; eta, hirugarrenean, Frankfurtetik hiriko ia zero kontsumoko eraikin pasiboen estrategia aurkeztuko da.

Gidatze eraginkorreko ikastaroek, bi erakusketek (Estándard Passivhaus eta Solar Decathlon Europe) eta Izotz Kuboaren Apustuak osatuko dute energiaren erabilera iraunkorrari buruz hausnartzera bideratutako aste horren programazioa.

JARDUNALDI TEKNIKOEN AGENDA

"ALKATEEN ITUNA" JARDUNALDIA

- Ekainak 18, astelehena
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Inskripzioak:
www.eve.es

Alkateen Itunaren eremuan garatzen ari diren estrategiak, jakintzak eta jarduerak bateratzeko helburuarekin, jardunaldi horretan bilduko dira ituna sinatu duten euskal udal-erriak eta ekimenaren Europako eta tokiko arduradunak.

Horretaz gain, jardunaldi horrek hasiera emango die Energiara Iraunkorraren Europako Astearen esparruan EAEko hainbat udalerrikan programatutako "Energiaren Egunei".

9:00	Irekiera
10:00	Europako Batzordearen ikuspegia Alkateen Itunari buruz: Itunaren etorkizuna
10:30	Alkateen Itunaren Bulegoaren ikuspegia, FEDARENen bitartez
10:50	Euskadiren Bruselako Ordezkaritzaren ikuspegia Europako Batzordeari eta Alkateen Itunari buruz
11:10	Energiaren Udal Plangintzako estrategia Euskadin, Alkateen Itunaren esparruan
11:30	Etenaldia – kafea
12:00	Vitoria-Gasteiz: Ituna eta Green Capital 2012
12:20	Irún, energia-plangintzaren aldeko apustua
12:40	Balmaseda, energia-plangintzaren aldeko apustua
13:00	Euskal udal-erri sinatzaileen mahai-ingurua
13:45	Energiaren Egunen inaugurazioa eta jardunaldiaren amaiera

Xabier Garmendia. Industria eta Energiako sailburuordea.

Ibone Bengoetxea. EUDELen presidentea

Leticia Comerón. Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren zinegotzi ordezkaria

Gabor Nagy. Europako Batzordearen ordezkaria, Energia Zuzendaritza Nagusia

José Ignacio Hormaeché. Fedareneko presidentea, CoM Office Itunaren Bulegoko kidea

Marta Marín. Euskadiren Bruselako Ordezkaritzaren ordezkaria

Natalia Díaz de Arcaya. Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) Udal-jardunen ekipoaren arduraduna

Leticia Comerón. Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren zinegotzi ordezkaria

José Antonio Santano Clavero. Irungo alkatea

Joseba Mirena Zorrilla Ibañez. Balmasedako alkatea

Moderatzailea Javier Vadillo. Cinco Días egunkari ekonomikoko erredaktorea. **Ituna sinatu duten udalerrietako alkateak**

Jose Ignacio Hormaeché. EEEko zuzendari nagusia **Ituna sinatu duten euskal udalerrien ordezkariak**

JARDUNALDI TEKNIKOEN AGENDA

“SOLAR DECATHLON EUROPE – EGUZKI VILLA: ESKALAN HIRI BATEAN PARTEKATUTAKO ENERGIA” JARDUNALDIA.

- Ekainak 19, asteartea
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Inskripzioak:
902 540 162
ses_solardecathlon@prismaglobal.es
(adierazi izena, abizenak, enpresa eta harremanetarako telefono-zenbakia)

9:15	Irekiera
9:45	SDE lehiaketaren helburuak. Etorkizuneko apustua Energiaren kudeaketan. 2010eko emaitzak
10:00	ekihouse, euskal eguzki-etxea
10:15	Eguzki Villaren partekatutako eguzki-sorkuntza
10:30	Etiket sarera. Sisteman integratzea
10:45	Azken erabiltzailea: etxebizitza adimenduna
11:00	Hirien esperientzia. Helburuak eta planteamenduak energia-aurrezteari dagokionez
11:15	Galderak hizlariei
11:30	Etenaldia – kafea
12:00	Jarraitu beharreko eredua. Hiri-laborategiak. Eguzki Villaren esperientzia
13:00	Jardunaldiaren amaiera eta bisita gidatua Solar Decathlon Europe maketa-erakusketara

Solar Decathlon Europe mundu osoko unibertsitateentzako lehiaketa bat da, eta Espainiako Sustapen Ministerioak antolatzen du, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoaren lankidetzarekin. Lehiaketaren helburua da energiari dagokionez kanpoko laguntzarik behar ez duen eta soilik eguzki-energiarekin elikatzen den etxebizitza bat diseinatu eta eraikitzea.

Jardunaldia honako hiru zati hauetan dago egituratua: lehenik, hitzaldi batzuk egingo dira Solar Decathlon Europe lehiaketak gaur egun arte bere garapenean eman duen balioa eta izan duen inpaktua balioesteko. Bigarrenik, mahai-inguru bat egingo da ekimen horretan emandako balioei buruz eta lortutako emaitzei buruz eztabaidatzeko. Azkenik, bisita gidatu bat egingo da Solar Decathlon Europe maketa-erakusketara.

Javier Sierra. Solar Decathlon Europe lehiaketaren arduraduna.

Juan Carlos Escudero. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaria

Sergio Vega. Solar Decathlon Europe lehiaketako eta 10Action programako project manager

Rufino Javier Hernandez Minguiñon. Doktore arkitektoa, Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoko irakasle titularra (UPV/EHU) eta ekihouse proiektuaren zuzendaria

Rafael Muñoz Lopez Villalta. Energy Efficiency & MV Innovation Manager. Schneider Electric

Florencio Manteca. Energietako zuzendaria Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalaren eraikuntzan.

Manuel Pereira. Gas Naturalaren Energia Eraginkortasunaren Sustapen Saila.

Alfredo Bengoa. Plangintza eta Proiektuen Zerbitzuko burua. Hirigintza Saila Vitoria-Gasteizko Udala

Moderatzailea **Juan Ramón Sanchez**
SDE lehiaketako erakunde-harremanen arduraduna.
Aurreko saioko hizlariak

JARDUNALDI TEKNIKOEN AGENDA

“ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA LEHIAKORTASUNA ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN” JARDUNALDIA

- Ekainak 20, asteazkena
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Inskripzioak:

902 540 162

ses_construccion@prismaglobal.es

(adierazi izena, abizenak, enpresa eta harremanetarako telefono-zenbakia)

Sektoreko krisi ekonomikoa, baliabide naturalak agortzea, egungo etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasun maila baxua, osasunarentzat arriskuak dituzten eraikuntza-materialak... konponbidea? **Beste era batean eraikitzea** –lehengai gutxiago erabiliz, obran ur eta energia gutxiago kontsumituz, eta hondakin gutxiago sortuz–, **jada existitzen dena energetikoki birgaituta, eta beste material batzuk erabilia** –birziklagarriak, energia-eraginkortasun handiagoa ematen dutenak eta, beraz, erabiltzailearentzako aurrezte ekonomikoak sortzen dituztenak, eta seguruagoak eta osasungarriagoak–: **eraikuntza iraunkorra egitea.**

9:00

Irekiera

Roberto Martínez de Guereñu. Sustapen Ekonomikoko Sailaren zuzendaria Vitoria-Gasteizko Udala

9:15

Sektorearen egungo egoera eta aurreikuspena

Juanjo López del Corral. Eraikune Euskadiko Eraikuntzaren Klusterraren zuzendari nagusia

9:45

Material berriak

Eider Uriarte/Javier Sánchez. Ingurubide, Hiri Iraunkortasunerako Baliabideen Zentroa

10:15

Etenaldia – kafea

10:45

Energia-eraginkortasuneko irizpideekin birgaitzea.

Jokin Martínez Iturregi. Passive House arkitekto ziurtatua

11:15

Eraikuntza-teknika berriak

José Luis Martínez Alberdi
ZBB. Baliabide naturaletara egokitutako etxeak

Administrazioaren egitekoa:

11:45

Gernika

Cruz Lacoma. Gernikako Tokiko Garapen Agentziako teknikaria

12:15

Vitoria-Gasteiz

Alfredo Bengoa. Plangintza eta Proiektuen Zerbitzuko burua. Hirigintza Saila Vitoria-Gasteizko Udala

12:45

Eusko Jaurlaritzza

Ignacio de la Puerta. Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria

13:15

Galderak eta ondorioak

13:30

Jardunaldiaren amaiera

JARDUNALDI TEKNIKOEN AGENDA

“ENERGIA-ALDAGAIA ETXEBIZITZAN”

JARDUNALDIA

- Ekainak 21, osteguna
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Inskripzioak:
902 540 162
ses_vivienda@prismaglobal.es
(adierazi izena, abizenak, enpresa eta
harremanetarako telefono-zenbakia)

Kalkulatu da Vitoria-Gasteizko energia-kontsumoaren laurden bat udalerriko etxebizitza- eta bulego-eraikinetan egiten dela. Ekonomiak, energiak eta eraikuntzaren sektoreak

egun bizi duten krisialdiaren barruan, etxebizitza-parkearen energia-birgaitzea eta eraikuntza energetikoki eraginkorra aukera berriak eskaintzen dituen elementu gisa agertzen da eraikuntzaren sektorearentzat eta gizarte osoarentzat. Kontuan hartu behar dugu % 20ko energia aurrezteko potentziala dagoela, gutxi gorabehera, eraikinen inguratzailer termikoan nahiz barruko instalazioetan lan egiten bada.

Jardunaldi tekniko horretan etxebizitzak energia-eraginkortasuneko irizpideekin birgaitzearen gaia aztertuko da, baita energia-sistema pasiboak nahiz sorkuntza-sistema berriak txertatzen dituzten etxebizitza berrien eraikuntzaren gaia ere.

9:15	Irekiera
9:45	Energia-eraginkortasunari buruzko Europako zuzentzarau berria
10:15	Ibilbide-orria eraikuntzaren sektore berrirako Espainian
10:45	Galderak hizlariei
11:00	Etenaldia – kafea
11:30	Energia-zerbitzuen enpresak: eraikinetan aurrezteko aukera bat
	Udalen esperientziak
12:00	Esperientziak eraikinen birgaitze- eta eraikitze-lanetan Høje Taastrupeko udalean
12:25	Hiri-birgaitzearekin lotutako energia-aurrezteak Zaragozan
12:50	Vitoria-Gasteizko ETEen Proiektua
13:15	Galderak hizlariei
13:30	Jardunaldiaren amaiera eta Danimarkako Enbaxadak emandako aperitiboa

Lone Dencker Wisborg. Danimarkako enbaxadorea
Miguel Garnica Azofra. Alkateordea eta Hirigintzako zinegotzia

Britta Thomsen. Europako legebiltzarkidea. Europako Parlamentuko Alderdi Sozialistaren (S&D) negoziatzailea

Dolores Huerta. Arkitektoa. Espainiako Green Building Council (GBCe) batzordeko idazkari teknikoa eta Birgaitzeko Lantaldearen (GTR) koordinatzailea

Oscar Puche Ormaetxea. EEEko Industria Unitateko Proiektuburua

John Larsen. Høje Taastrupeko (Danimarka) udaleko Eraikinen eta Barne Zerbitzuen Zentroko burua

Juan Rubio del Val. Zaragozako Udaleko Hiri Birgaitzeko Udal Sozietatearen Bizileku Berrikuntzarako Proiektuen eta Hiri Birgaitzearen arloko burua

Alberto Ortiz de Elgea. Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EAre berrikuntza eta iraunkortasuneko arduraduna, eta Vitoria-Gasteizko ETEen Proiektuaren koordinatzailea

JARDUNALDI TEKNIKOEN AGENDA

“IBILGAILU ELEKTRIKOA MUGIKORTASUN IRAUNKORREAN” JARDUNALDIA

- Ekainak 22, ostirala
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Inskripzioak:
www.eve.es

2011. urtean Espainia osoan guztira saldutako 428 ibilgailu elektrikoetatik, % 16 Euskadin daude, eta horrek kuota altua adierazten du euskal biztanleriaren ehunekoari dago-kionez, Espainiako biztanleria osoaren % 5era ere ez baita iristen.

Mugikortasun elektrikoa Euskadin ezartzeko Eusko Jaur-laritzak finkatu dituen helburuekin bat etorriz, asmoa da 2020. urtean 41.000 ibilgailu elektriko zirkulazioan egotea eta ibilgailu horiek kargatzeko 7.000-13.000 puntuko sare bat izatea.

2011. urtean guztira 70 ibilgailu elektriko jarri ziren zirkula-zioan Euskadin, eta gaur egun 100 ibilgailu elektriko baino gehiago daude, eta horrek guztiak adierazten digu Euskadin estrategia sendoa dagoela mugikortasun elektrikoaren alde egiteko.

9:00	Irekiera	Xabier Garmendia. Industria eta Energiako sailburuordea. Leticia Comerón. Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
9:30	Ibilgailu elektrikoaren estrategia Danimarkan	Jakob Hanghoj. Merkataritza eta Ekonomiako aholkularia Danimarkako Errege Enbaxada
10:00	Ibilgailu elektrikoaren estrategia Euskadin	Txaber Lezamiz. EEEko Garapen Teknologikoko arduraduna
10:30	Karga Kudeatzailearen figura berria	Enrique Monasterio. IBILEko zuzendari nagusia
11:00	Galderak hizlariei	
11:15	Etenaldia – kafea	
11:45	Car-Sharing elektrikoa	Irene Huidobro. IBILEkeko Eragiketa-arduraduna
12:15	Mugikortasun iraunkorraren eragina Hiri Adimendunen garapenean	Aitzol Fernandez. CEO Evolo Evolving Mobility SL
12:30	Hiriko Proiektua	Armando De Sousa Gaspar. Hiriko enpresaren Managing zuzendaria
12:45	Hiri banaketa iraunkorra Mercedes-Benz E-Cell furgonetekin	Carlos Luis Nieto Rodríguez. Produktuburua Furgonetak, Mercedes-Benz
13:00	Galderak hizlariei	
13:15	Saioaren amaiera, ecar-sharing erakusketa, ibilgailu elektrikoa kargatzea, eta bisitak Evolo eta Mercedes-Benz ibilgailu elektrikoiei. Irene Huidobrok (IBILEKen Operazioen arduraduna), Aitzol Fernandezek (CEO Evolo Evolving Mobility, SL) eta David Martínez Aldeak (KAM Flotas Mercedes-Benz) egindako erakusketa.	

EKOLOGIAKO IKASGELEN AGENDA

“EGUZKI ENERGIAREN APROBETXAMENDUA VITORIA-GASTEIZEN”

● **Ekainaren 18an.**

Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Sarrera doan

Europako POLIS proiektuaren bitartez lortutako gure hiriko eguzki-energia aktibo eta pasiboaren aprobetxamendu-potentialaren mapa aurkeztu ondoren, ingeniariak eguzki-energiaren aprobetxamenduaren eta tenperaturaren kudeaketaren esparruan izan dituen azken garapenak azalduko dira.

19:00

“Eguzki Energia fotovoltaikoko potentziala Vitoria-Gasteizen: POLIS proiektuaren emaitzak”

Nacho Useros. POLIS Proiektuaren arkitekto ikertzailea, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa.

Susana Díaz-Palacios. POLIS Proiektuaren nekazaritzako ingeniari ikertzailea, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

19:30

Energia-eraginkortasuna eraikinetan
“Gai estrategikoa”

Miguel Toril Juárez. Mito-Solarex enpresako kudeatzailea

20:00

Mahai-ingurua

“ENERGIA BERRIZTAGARRIEN APROBETXAMENDUA KLIMATIZAZIOAN: BIOMASA ETA GEOTERMIA”

● **Ekainaren 19an.**

Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Sarrera doan

Erregai fosilen prezioan izandako igoeraren ondorioz, biomasa eta geotermia klimatizazio-proiektuak modu errentagarrian eta ingurumen-inpaktu baxuarekin gauzatzeko aukera emateko heldutasun teknologiko nahikoa duten bi energia berriztagarri dira.

19:00

“Udaleko bero-sareak biomasarekin”

Iñaki Hernanz. Energia Berriztagarrien Ustiapenerako Bulego Teknikoko zuzendaria. Giroa

Pedro Soto. Sektoreburua. Giroa

19:30

“Tenperatura baxuko geotermia.
Ariznabarrako Adinekoen Zentro
Soziokulturelean izandako emaitzak”

Iñigo Arrizabalaga. TELUR Geotermia y Agua, SA enpresako zuzendaria

20:00

Mahai-ingurua

EKOLOGIAKO IKASGELEN AGENDA

“ERAIKIN PASIBOAK = IA ENERGIA KONTSUMORIK GABEKO ERAIKINAK”

- **Ekainaren 21ean.**

Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Sarrera doan

Eraikin pasiboek beren inguratzaila zaintzen dute, eraikinaren azala, eta eguzkiaren beroa aprobetxatzen dute barrualdean ahalik eta erosotasun handiena lortzeko, energia-gastu txiki batekin. Horretarako, ekonomiaren eta eraikuntzaren arteko oreka bilatzen dute. Pixka bat garestiagoak izan arren, 10 urteko epean beren sustatzaileentzat errentagarriak izaten hasten dira, energia-faktura hamarrena murriztea lortzen baitute. Eraikinen barrualdean nahi

ez diren aire-sarreren kontrolak eta egikaritze zainduak nabarmen murrizten dute denborarekin eraikuntza-arazoak agertzeko aukera, eta balio erantsia ematen diete ohiko eraikinekin alderatuta. Eraikin Pasiboak dira la Energia Kontsumorik Gabeko Eraikinen oinarria, eta hori da Europar Batasunak hamarkada honen amaierarako helburu gisa ezarri duen eraikuntza-estandarra.

19:00

“Eraikin Pasiboak = la Energia Kontsumorik Gabeko Eraikinak”

20:00

Mahai-ingurua

Micheel Wassouf. Arkitektoa, ENERGIEHAUS-TBZ enpresako zuzendaria, Passivhaus Eraikuntza Plataformako bazkidea

Javier Crespo. Arkitektoa, ARKE arquitectos elkarteko bazkidea, Passivhaus Eraikuntza Plataformako presidentea

Francisco Martinez. STO SDF Ibérica SLU erakundeko zuzendari nagusia

ERAKUSKETAK

- **Ekainaren 18tik 21era**
Europa Kongresu Jauregia. Gasteiz Aretoa

Solar Decathlon Europe 2012 *Tokia: Mirador aretoa*

Etxebizitza-maketen erakusketa horrek Solar Decathlon Europe 2012 lehiaketa ezagutarazten du. Nazioarteko unibertsitate-lehiaketa bat da, eta Sustapen Ministerioak antolatzen du, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoaren lankidetzarekin. Helburua da energiari dagokionez kanpoko laguntzarik behar ez duen eta soilik eguzki-energiarekin elikatzen den etxebizitza bat diseinatu eta eraikitzea.

Ekimena amaitzeko, unibertsitate parte-hartzaileek diseinatu eta eraikitako 20 etxebizitza muntatu eta erakutsiko dira, Eguzki Villa deitutakoan. Unibertsitateak 14 herrialde ezberdinetakoak izango dira. Eguzki Villa Landako Etxearen (Casa de Campo) ingurune naturalean kokatuko da, eta jendearentzat irekia egongo da 2012ko irailaren 14tik 30era.

Solar Decathlon Europe 2012 lehiaketaren asmoa honako hau da: alde batetik, gizartea hedatu eta kontzientziaztea energia-eraginkortasunaren, energia berriztagarrien eta egu-

neroko kontsumoa murrizten laguntzeko eskuragarri dauden teknologien inguruan; eta, bestetik, arkitektura onarekin eta konponbide tekniko eraginkorrekin egindako etxebizitzak eraiki daitezkeela frogatzea, erosotasun-baldintzak bazter utzi gabe behar bezala funtzionatzen dutenak eta ingurumenarekiko atseginak direnak.

10 Action Europako programa bat da, eta bere helburua da Solar Decathlon Europe lehiaketaren bitartez ikasitako jakintzak hedatzea. Horretarako, haurrentzat, nerabeentzat, ikasleentzat, eraikuntzaren sektoreko profesionalentzat eta jendearentzat, oro har, hedatzeko eta kontzientziazteko jarduerak egingo dira Europa osoan zehar, energia berriztagarrien erabilerari buruz, energia-eraginkortasunari buruz, energiaren erabilera arduratsuari buruz, eta iraunkortasunari buruz.

www.sdeurope.org
www.10action.com

Passivhaus Estandarra *Tokia: tarteko solairua*

Frankfurten ERAIKIN HEZITZAILEEI buruz antolatutako erakusketaren asmoa da airearen kalitatearekiko oso sentiberak diren pertsonak –nagusiki hurrek– okupatuko dituzten eraikinak Passivhaus estandarren arabera eraikitzeko aukera dagoela jakinaraztea.

www.plataforma-pep.org

EKITALDIAK

● Ekainak 15-21

Loma Jeneralaren plaza

Izotz Kuboaren Apustua
Klimaren aldeko apustua!
Urtzen da ala ez?

Frogatu egin da energia aurrezteko sistema pasibo ezberdina txertatzen dituzten eraikinek erosotasun termikoko maila altua lortzen dutela (neguan nahiz udan), eta, aldi berean, klimatizazioarekin lotutako energia-kontsumoak murrizten dituztela. Horrek jabeentzako aurrezte ekonomiko handia suposatzen du, eta berotegi-efektuko gasen emisioaren murrizketa nabarmena.

Ekainaren 15etik 21era, Energia Iraunkorraren Europako As-tearen esparruan, 1.000 litroko (1m³) bi izotz-kubo ezarriko dira Loma Jeneralaren plazan. Bietako bat aire zabalean kokatuko da, eta bestea berotik babestuko da, ondo isolatutako kutxa batean sartuz, aire-zirkulazioarekiko hermetikoa. Inguratzaile horren isolamendua eraikinen isolamendurako Passivhaus estandarraren arauen arabera eraikiko da.

Aire zabalean kokatutako izotz-kuboa erreferentzia gisa hartuta, nahi duten hiritar guztiek apustu bat egin ahal izango dute eta emango zaien txartel batean adierazi isolatutako izotz-kuboko zenbat litrok iraungo duten erakusketaren 7 egunetan zehar. Azken baliora gehien hurbiltzen den pertsonak sari bat jasoko du.

Izotz-kuboetako bat kanpoaldetik isolatzen duen kutxaren kanpoko estaldura euskarri gisa erabiliko da ETEen proiektua eta eraikin pasiboaren kontzeptua ezagutarazteko.

Europako Batzordearen CONCERTO Ekimenaren esparruan, eta ETEen proiektuaren garapen gisa, energiaren erabileran oso eraginkorrak diren 432 etxebizitza eraikitzen ari dira Vitoria-Gasteizen. Etxebizitza horiek abangoardiako eraikuntzako konponbideak txertatuko dituzte energia-eraginkortasuna hobetzeko, eta, aldi berean, aukera emango diete bizilagunei eraikinaren energia-kudeaketa eraginkorrean parte hartzeko. Proiektu hori, eraikin horien eraikuntzan eta ondoko monitorizazioan lotutako ezagutzak eta esperientzia Europako gizarte osoari eta eraikuntzaren sektoreari helarazteko asmoarekin jaio zen, azken batean eraikin berrien energia-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko helburuarekin.

Eraikin pasibo bat da barrualdeko airearen kalitate onarentzat beharrezkoa den aire freskoaren bitartez erosotasun termikoa berma dezakeen eraikina. Aireztapen-sistema hori gai da eraikinak behar dezakeen berokuntza edo hozkuntza guztia bere kabuz lortzeko, beste sistemarik erabili gabe.



EVE | Ente Vasco
de la Energía

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



DANISH PRESIDENCY OF THE COUNCIL
OF THE EUROPEAN UNION 2012



sd europe
SOLAR DECATHLON



**Pacto de los
Alcaldes**
Por una energía
sostenible local



CIVITAS
EUROPEAN INITIATIVE
FOR SUSTAINABLE
CITIES



THE CIVITAS INITIATIVE
IS CO-FINANCED BY THE
EUROPEAN UNION



IPOLIS
Identification and mobilisation of solar PV potential via local strategies



ten act10n
INTELLIGENT ENERGY
AUDIT



visesa



acciona
Infraestructuras



tecnalia
Inspiring
Business



Giroa
Grupo Dalkia



telur
geotermia y agua



ENERGIEHAUS
DESARROLLO EDIFICIOS PASSIVHAUF



**PLATAFORMA
EDIFICACIÓN
PASSIVHAUS**